

Eutsaga



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Gure baserrietan, duela ez hainbeste, belar ondua, idorra, iharra... ganaduentzat ganbarara eramateko gurdia kargatu (hala moduzko leku edo bide malkartsua izaten zen askotan) eta 3-4 metro luzeko haga erabiltzen genuen, gurdi gainekoaren eta belar onduaren artean sartu eutsagaren muturra, eta pertsona sasoiko batek bere pisua eta indarra erabiltzen zuen, gurdia itzulipurdika maldan behera eror ez zedin.

Ahoskatzean, euts-aga euskara tankerakoak dira eta uste dut baduela gure hizkuntzak eutsagaren premia galanta.

Etiketetik hasita hartzen dira ohiturak eta aukerarik ez denean ezin da, baina aukera eduki eta ez egitea baino eskasagorik ba ote? Etxea esatean bizitokia ez ezik esan nezake eskola, lantokia, herria... "Gabirian euskaraz bizi gara", dio kolorea aski galdua duen kartelak eta "ere" bat idatziko nioke erdian. Euskarak ere bat jasan duela uste dut; erabilera gainbehera doalako, euskaraz ere bizi gara, zehaztuko nuke.

"Gabirian euskaraz bizi gara", dio kolorea aski galdua duen kartelak eta "ere" bat idatziko nioke erdian. Erabilera gainbehera doalako, euskaraz 'ere' bizi gara

Zertarako Madrilen diputatuen ganberan euskara erabiltzeko ahaleginak, aurrena hemengo administrazioan, Gasteizen, aldundietan... ez badute, ohituraz, guztiek egiten? Eta ordezkari ezagun batek zioena erantsita: "Euskaldun berriok gehiago dihardugu euskaraz euskaldun zaharrek baino, haiek salto egiten dute erdaretara, eta guk eusten diogu euskarari, beharbada ikastea kosta zaigunagatik!".

Belar ondua aipatu dut, jakina, belar txarrak ezin ondu, etxeratu eta ganbaran gorde, ez baitute balio (h)

aziendak behar bezala elikatzeko. Euskara ikasi eta ikusi nahi ez duenak, kultura euskalduna galtzen du eta indarra duten hizkuntzena lehenetsi, irentsi.

Estandarra, globala... denok berdintzen gaituen kulturaren atzean zein interes dauden ikusi behar, konturatzeko *Black Friday*, *Halloween*, *Aita Noel*, *Père Noël*... aitzakia direla mundua negoziarako azoka bakar bihurtzeko, interesen kultura geurearen gainetik jarrita. Baina geurea eza gutzen ez badugu, gure mundu ikuskera galdu badugu, mundutar garelako sinetsaraziko digute, zerbait gehiago delakoan. Zer ekarpen egingo diot munduari, biluzik, esku hutsik?

Ganbarak eta ganbarak daude eta ganbarako lana ekipoan egitea komeni da, bakoitzak bere ganbara nekatuaz, izenetik hasi eta edukia antolatzeraino, neguari aurre egin eta udaberriari kementsu ekiteko. Beno, negua ere... ez al digute lapurtu? Ala ezabatu? Geuk egin dugula? Orduan *digute* ordez *dugu*?

Animo, ezkur urte, elur urte! ●

AZAROAK 2-12
ERRESISTENTZIA
 Erresistentzia istorioen zinemaldia
 ANAHIDE UGUZIS
 Kulturarteko Plaza Feminista
 Florida auzoa 28, Hernani
 f i t @hariakzinemaldia
 Hernaniko Udala